

Gure enpresa, lonja batean egongo denez, hainbat modutara erosteko aukera egongo da eta gainera berritzailea denez, aukera sorta bat emango diegu klienteei. Bizum, kredito txartelarekin edo efektiboan ordainduko da, gaur egun uste dugulako hiru metodo hauek direla ezagunenak ordaintzeko. Orduan, gure diru iturriak, batez ere bezeroak izango dira, eta gainera lokala irekitzeko, autonomoak izateagatik, gobernuaren diru laguntzak eskuratuko ditugu.

Gainera, hainbat aukera egongo dira, edo etxera bidaltzea edo lokalera etortzea janariaren bila, beharren arabera. Hau egiten dugu uste dugulako jendeari gehiago gustatzen zaiola produktuak etxera bidaltzea baina bestalde, dago jende asko agian gustatzen zaiola oinez ibiltzea, edo ez du nahi gehiago ordaindu bidalketa gastuengatik, arrazoi desberdin asko egon daitezke bat edo beste aukera hautatzeko.